



Botilaratutako sagardorik onenaren saria emango dute

► 19 sagardogilek parte hartu dute Diputazioak antolatu lehiaketan

Txotx garaia amaitu, eta uda botilaratutako sagardoa edateko sasoia da. Hain zuzen ere, botilan dagoen sagar zukuaren prestigioa bultzatzeko asmoz sortu du Diputazioak Sagardo Lehiaketa. Aurtengoa 2. ekitaldia da, eta Gipuzkoako 19 ekoizleek hartu dute parte. Gaur, eguerdian, irabazlearen izena plazaratuko dute Donostian.

Kristina MARTIN

DONOSTIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatu duen sagardo lehiaketaren irabazlearen izena gaur jakinaraziko dute. Sari-emate ekitaldia eguerdian izango da, Euskal Gastronomia Elkarteak Donostiako Alde Zaharrean duen egoitzan.

Lehiaketaren bigarren ekitaldia da aurtengoa, eta guztira, herrialdeko 19 sagardogile aurkeztu dira, horietatik hamaika, udalerrrikoak. Azkenean, sei aukeratu dituzte finalean lehiatzeko, eta epaimahaikoak sei horien artean lehen, bigarren eta hirugarren sariak banatu beharko ditu gaurko ekitaldian.

Aurtengo finalistak Ikaztegi-tako Begiristain Sagardoak-iazko irabazlea-, Astigarraga Gartziategi eta Oyarbide Sagardoak, Andoaingo Gaztañaga sagardotegia, Tolosako Isastegi eta Usurbilgo Urdaira dira.

Sagardo Lehiaketak botilan dagoen sagardo naturalaren kalitatea neurtzen du. Lehiaketan parte hartzeko hiru baldintza bete behar dituzte sagardo ekoizleek: sagardotegia Gipuz-



Javier ECHEZARRETA | EFE

Txotx garalaren ostean, botilan dagoen sagardoa edateko sasoia da uda.

koan egotea, botilaratze erregistroa edukitzea, eta Lakuako Nekazaritza Industrien Errolan sartuta egotea.

Sagardogile bakoitzak hiru eta bost upel bitartean aurkeztu zituzten pasa den maiatzean, eta handik dozena bat botila aukeratu dituzte lehiaketaren antolatzaileek. Lagin horiek Biasteriko Ardoaren Etxeko laborategira bidali, eta han aztertu zuten. Azterketaren emaitzak eta dastaketarenak kon-

tuan hartuta, hasierako 19 horietatik sei finalistak aukeratu dituzte bi dastatzaile taldek.

Gaur, hortaz, hiru sari emango dituzte. Lehen saria 1.500 eurokoa da, bigarrena 750 eurokoa, eta hirugarrena 300 eurokoa. Horretaz gain, hiru irabazleei garaikurra emango diete; garaikurrak Jesus Mari Garmendia eskulangileak egin ditu, eta Añorgako Bidarte baserrian dauden egurrezko barrika batzuen erreproduktzioak dira.